

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Oinarrizko zientziak
Ikasgia:Patologia: Oinarrizko zainketak	Eskolen kronograma: 2. Lauhikekoa
Kodea: 26439	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Irakasgai honetan, ikasleak helduaroko osasun- eta gaixotasun-prozesuak zehazten dituzten prozesu fisiopatologikoak, horien zeinuak eta sintomak eta arrisurfaktoreak ezagutzen ditu. Ezagutza horiei esker, ikasleak gaitasuna izango du pertsonen osasunean gertatzen diren aldaketak eta konplikazioak baloratzeko eta identifikatzeko, eta Erizaintzako oinarrizko zainketak aplikatzen hasteko.	ECTS kredituak: 6
Sartzeko eskakizunak / gomendioak Eskakizunik gabe	Kurtsoa: 1.Maila

IRAKASLEAK

Tel.

Helbide elektronikoa

Irakasgaiaren arduraduna	Tel.	Helbide elektronikoa
Lorena Hernando Gorgojo	945 218059	lorena_hernando001@ehu.eus
Euskarazko lerroko irakasleak Lorena Hernando Gorgojo Tailerretako irakasleak Lorena Hernando Gorgojo Sergio Yuste Muñoz AUOko fisioterapeutak Osakidetzako Emergentziak	945 218287	sergio_yuste001@ehu.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Bizi-arriskuko egoerak antzematea eta pertsonen ongizatea prebenitzeko, mantentzeko eta handitzeko osasun-gaixotasun prozesuan oinarrizko zainketak aplikatzearen arrazoia azaltzea.
- G2. Erizaintzako oinarrizko zainketen teknikak eta prozedurak egitea eta oinarrizko bizi-euskarriko maniobrak egitea simulazio klinikoaren bidez

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Osasunaren eta gaixotasunaren kontzeptuak definitzen ditu, eta prozesu horietan inplikaturako faktoreak ezagutzen ditu.
- IE2. Fisiopatologia azaltzen du eta osasun- eta gaixotasun-prozesuen (estres fisiologikoa, mina eta hantura-prozesua) faktore eragileak identifikatzen ditu.
- IE3. Ea deskribatzen eta justifikatzen dituen osasun-gaixotasun prozesuetan egiten diren erizaintzako jarduerak eta zainketak.
- IE4. Min mota ezberdinak ezberdindu eta baloratzen ditu.
- IE5. Ohean egotearen ondoriozko konplikazio potentzialak identifikatzen eta azaltzen ditu, baita horietatik eratorritako edo prebentziora bideratutako erizaintzako oinarritzko zainketak ere.
- IE6. Heldu baten nutrizio-egoera baloratzeko tresnak ezagutzen eta erabiltzen ditu, haren nutrizio-eskakizunak kalkulatzeko eta ezarritako dieta baten egokitasuna justifikatzen du.
- IE7. Larruazalaren integritatearen alterazioan esku hartzen duten mekanismoa deskribatzen ditu, eta identifikatzen ditu alterazio horiek prebenitzeko edo tratatzeko erizaintzako zainketak.
- IE8. Ezegonkortasun hemodinamikoko egoerak eta prozesu horretan eragina duten faktoreak identifikatzen ditu.
- IE9. Ezegonkortasun hemodinamikoko egoeretan erizaintzako zainketak deskribatzen eta justifikatzen ditu.
- IE10. Gaixotasun-prozesuetatik edo osasunaren desbideratzeetatik eratorritako erizaintzako prozedurak eta zainketak egitean jarrera, trebetasuna eta ezagutzak praktikatzeko eta erakusten ditu.
- IE11. Bizi-arriskuko eta/edo bihotz-biriketako geldialdiko egoerak identifikatzen ditu. Oinarritzko bizi-euskarriko maniobrak gauzatzen ditu, ezagutza eta trebetasuna erakutsita.

EDUKIAK

Irakasgai honek hiru gai-unitate handi biltzen ditu.

Lehen unitatean, Osasuna eta Gaixotasuna kontzeptuak eta faktore kausalak sartzen dira, eta pertsonak osasun- eta gaixotasun-prozesuen aurrean duen erantzunari heltzen zaio, arlo fisikoan, psikologikoan eta sozialean duen eragina ulertzeko eta oinarritzko zainketa-maila batean erizainari hel dakiokkeen egoeren balorazio egokiak egiteko gai izateko.

Bigarren unitatean, pertsona zaugarriak, ohean daudenak edo mugitu ezin direnak zaintzen dira, haien osasun-maila prebenitzeko, mantentzeko, handitzeko eta berreskuratzeko. Era berean, larruazalaren osotasunean alterazioak izateko arriskua duten edo alterazioak dituzten pertsonen prebentzio- eta tratamendu-zainketei heltzen die, bai eta ezegonkortasun hemodinamikoa eta/edo osasun-egoera basalaren aldaketak dituzten pertsonen balorazioari eta zainketari ere.

Hirugarren unitateak bizi-arriskuko egoerak garatzen ditu pertsonengan, egoera horiek antzemateko, baloratu beharreko alderdiak identifikatzeko eta oinarritzko bizi-euskarriko maniobrak eta berehala jardutea eskatzen duten bestelako zainketak egiteko gai izateko.

Hiru unitate tematikoak oinarri sendoak eta kritikoak dituen ikuspegi batetik lantzen dira, osasuna desbideratzen den eta erizaina zaindu daitekeen egoeretan pertsonak zaintzeko oinarritzko premiei erantzungo dien arreta integrala ematera bideratuta.

I. UNITATEA: PATOLOGIAREN HASTAPENAK

- 1.1. Osasun eta Gaixotasun Prozesua. Prozesu akutua eta prozesu kronikoa.
- 1.2. Pertsonaren erreakzioa patogenezian. Estrepera egokitzeko sindrome orokorra: fisiopatologia. Agerraldiak baloratzea. Zainketak.
- 1.3. Mina: Minaren fisiopatologia Motak: Mina baloratzea. Eskalak: Oinarrizko zainketak mina duten pertsonentzat.
- 1.4. Erantzun inflamatorioa: fisiopatologia. Agerraldiak baloratzea. Oinarrizko zainketak prozesu inflamatorio bat duten pertsonentzat.

II. UNITATEA: ERIZAINZAKO OINARRIZKO ZAINKETAK

- 2.1. Osasunaren balorazioa: Azterketa fisikoa. Egiteko metodoak eta prozesua.
 - o Azterketa fisikoko tailerra, honako hauek jasoko dituena: miaketa, auskultazioa, perkusioa eta gorputz-haztapena. (2 ordu)
- 2.2. Bizi-konstanteen fisiopatologia. Pertsonengan ezegonkortasun hemodinamikoa eragiten duten faktoreak. Baloratu beharreko adierazpenak eta oinarrizko zainketak tentsio arterialaren, bihotz-maiztasunaren, gorputz-tenperaturaren, oxigeno-saturazioaren eta arnas maiztasunaren alterazio-egoeretan. Glukosamailen alterazioei eta beste parametro analitikoiei buruzko oinarrizko kontzeptuak. Balantze hidrikoari buruzko oinarrizko kontzeptuak.
 - o Bizi-konstanteen tailerra: tenperatura, bihotz-maiztasuna, presio arteriala, arnasketa-maiztasuna eta oxigeno-asetasuna. Normaltasun- eta desbideratze-balioak eta konstanteak hartzean eragina izan dezaketen faktoreak (2 ordu).
 - o Gluzemia eta balantze hidrikoko tailerra (2 ordu).
 - o Odo/- ateratzea (2 ordu).
- 2.3. Paziente hauskorren kontzeptua. Paziente hauskorren balorazioa eta zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak behar dituzten oinarrizko zainketak.
- 2.4. Ohean egoteak eta mugitu ezak eragindako konplikazioak. Ohean dagoen pertsonari oinarrizko zainketak egitea, arreta integrala emateko.
 - o Pazienteen mugikortasunari aplikatutako gorputz-mekanikako printzipioen tailerra. Jarrera-higienearen eta ergonomiaren printzipioak eguneroko praktika klinikoan (3 ordu)
 - o Ohean dagoen pertsonaren higienarako eta oinarrizko zainketetarako tailerra (2 ordu)
- 2.5. Nutrizioaren eta elikaduraren kontzeptuak. Nutrizio-balorazioa eta oinarrizko zainketak desnutrizioa prebenitzeko.
 - o Ariketa praktikoa: kasu kliniko bat ebaztea eta ikusgai jartzea. 5-6 pertsonako taldeetan egingo da (2 ordu).
- 2.6. Alterazioak larruazalaren osotasunean: zaurien definizioa, fisiopatologia, etiologia. Motak: zauri akutua, zauri kronikoa. Zauriak kronifikatzen dituzten faktoreak. Presio-ultzerak izatea. TIME kontzeptua PUK prebenitzeko eta tratatzeko zainketak.
 - o Zauriak sendatzeko tailerra. Zauri sinpleak sendatzea eta zauri ebakidunak jostea (2 ordu)

III. UNITATEA. BIZI-ARRISKUKO EGOERAK ETA ZAINKETA-ARLOAK

3.1. Bizi-arriskuko egoerak Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB) eta bizi-arriskuko egoeretan jardutea.

Kanpoko desfibriladore automatikoaren (KDEA) erabilerari buruzko ezagutza.

- o *Bizi-arriskuko egoerak baloratzeko eta oinarrizko bizi-euskarriko maniobrak egiteko eta KDEA erabiltzeko trebetasuna eskuratzeko tailerra. Arnasbideetako buxadura askatzeko maniobrak (2 ordu)*

Tailerren antolaketa zehatza eGela plataforma birtualean kontsultatu ahal izango da, irakasgaiaren hasieran.

GAI-UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	TAILER-ORDUAK
1	Lorena Hernando Gorgojo	10	0
2	Lorena Hernando Gorgojo	29	0
	Lorena Hernando / Sergio Yuste	0	12
	Osakidetzako fisioterapeutak	0	3
3	Osakidetzako Emergentziak	2	4
GUZTIRA		41	19

METODOLOGIA

Irakasgaiak gaitasunak garatzeko, honela osatuko da ezagutza:

- **Klase magistralak:** irakasleak ikasleen parte-hartzea sustatuko du, ikus-entzunezko material didaktikoekin eta bestelako baliabide zientifikoekin, landutako gaiak ulertzea eta aztertzea sustatzen duten testuekin batera. Azalpen-saioretara joatea ez da nahitaezkoa.
- **Tailerak:** talde txikietan antolatutako jarduera da, eta derrigorrezkoa da bertaratzea. Ikasleak banaka edo taldeka landuko du ezagutza eta trebetasun teknikoaren garapena.

Laborategiko praktikak / tailerrak modu aktiboan emango dira. Ikasleek praktikak egin beharko dituzte, eta, hain zuzen, praktika horiek dira jarduerak ikasi eta entseatzeko oinarria. Ikasleak, tailer bakoitza egin aurretik, horretarako emango zaion materiala irakurri eta ulertu beharko du. Material hori eGelan egongo da eskuragarri.

Une jakin batean tailerren batera joaterik ez badu, ikaslea irakasgaiaren arduradunarekin harremanetan jarri beharko da, kasuan-kasuan nola jokatu jakiteko.

Aurrez aurreko irakaskuntza edota ebaluazio-jarduerak ezin badira egin edo ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera uzten badira, eskola magistralak online egingo dira, eta jarduera eta ebaluazio-irizpide berriak ezarriko dira. Neurri berri guztiak behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkie ikasleei.

LAN PRESENTZIALA (60 ORDUAK)		
Eskola magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
41	0	19

LAN EZ-PRESENTZIALA (90 ORDUAK)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
58	30	2

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

EBALUAZIO-SISTEMAK

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- Lantegiak **test motako 5 probarekin** ebaluatuz. Proba horiek nahitaez egin beharko dira, eta **alde aurreko prestakuntza (konpromisoa) eta parte hartzea (jarrera eta inplikazioa) ebaluatu beharko dira**. Testen eta tailerren datak eGelean argitaratuko dira, irakasgaiaren hasieran.
- **Amaierako ebaluazioa idatzizko amaierako proba** bat izango da. Test gisako galderak, galdera laburrak eta unitate tematiko bakoitzerako kasu praktikoen ebazpena izango ditu. Amaierako ebaluazioak **amaierako proba praktikoa** bat ere izango du: bizi-arriskuko egoerak baloratzeko eta oinarritzko bizi-euskarriko maniobrak eta berehalako arreta eskatzen duten beste jarduketa batzuk gauzatzeko gaitasunaren banakako erakustaldi praktikoa.

Irakasgaiaren azken kalifikazioa emateko, ebaluazio-jarduera guztiek gaindituta egon behar dute; bestela, ez da batezbesteko aritmetikorik egingo.

Azken emaitza eman ahal izateko, ebaluazio-jarduera guztien balio osoaren %50 gutxienez lortuta gainditu beharko da. Ebaluazio-jardueraren bat gainditzen ez bada, 1. deialdiko aktaren kalifikazioa ez-gai izango da.

Azken azterketara (idatzizko proba) ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

GAITASUNAK	JARDUERAK/EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	Idatzizko azken proba (idatzizko azterketa): test gisako galderak, galdera laburrak eta egoera praktikoen ebazpena. * Idatzizko gaitasuna irizpide honen arabera ebaluatzen da titulazioko irakasgai guztietan: "Idatzizko ebaluazio-lan eta -proba guztietan, ortografia eta sintaxi faltak kopuruaren arabera zigortuko dira, bakoitza 0,1 punturekin zenbatuz, gehienez 0,5 punturaino".	%65
G2	Tailer bakoitzaren aurreko test motako proba: trebetasunen eta oinarritzko zaintzen ebaluazio jarraitua	% 15
	Tailerrak: oinarritzko zainketen eta prozeduren etengabeko ebaluazioa: prestaketa (konpromisoa) eta tailerretan parte hartzea (jarrera eta inplikazioa)	% 10
	Azken proba praktikoa (azterketa praktikoa): Bizi-arriskuko egoerak baloratzeko eta oinarritzko bizi-euskarriko maniobrak egiteko gaitasunaren banakako erakustaldi praktikoa.	% 10

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6, IE7, IE8, IE9, IE10, IE11	Klase magistralak	- Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%60
G1	IE10	Tailerrak	- Tailerretan parte hartzea (%10) - Aurreko testa (%10)	%25
G2	IE11	Tailerrak: simulazioa	- Azterketa praktikoa (%10) - Idatzizko azterketa: testa galderak (%5)	%15

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA-n argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Ebaluazio jarraituko sistema duten ikasgaietan, azken probaren edo azterketaren balioa amaierako kalifikazioaren %40 edo gehiago bada, azterketara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarria eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jardura artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jardura sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

- **AMAIERAKO PROBA IDATZIA (% 80)**

Amaierako probak bi zati izango ditu. Batetik, I. eta II. unitateen ebaluazioa negatiborik gabeko galdera laburren eta test motako galderen bidez egingo da eta azken notaren %75 balioko du. Bestetik, III. unitatearen ebaluazioa galdera test motako galderen bidez egingo da, eta horietako bakoitzak azken notaren %5 hartuko du.

- **AZKEN PROBA PRAKTIKOA (% 10)**

Amaierako proba praktikoa, ikasleek modu praktikoa eta bakarka erakutsiko dute bizi-arriskuko egoerak baloratzeko eta oinarritzko bizi-euskarriko maniobrak egiteko gaitasuna.

- **TAILERRAK (%10)**

Ebaluazio jarraituko sisteman dauden ikasleek bezala, **irakasgaia gainditzeko nahitaezkoa da tailer guztietara joatea eta bakoitzari esleitutako notaren %50 gainditzea, gutxienez.** Tailerretan, lortutako trebetasuna, aurretiko prestakuntza (konpromisoa) eta trebakuntzetan parte hartzea (jarrera eta inplikazioa) baloratuko dira, ikasturte hasieran eGelan erantsiko diren matrizearen adierazleak aplikatuz.

Ikasleak ezin badu eskatutako bertaratze-konpromisoa bete justifikatutako edo ezinbesteko arrazoiengatik, amaierako azterketaren egunean erakutsi beharko du lortu dituela egin edo gainditu ez dituen ikasgaiko tailerretan planteatutako ikaskuntza-emaitzak (ezagutzak eta trebetasunak).

Justifikatu gabe eta alde zuzenetik jakinarazi gabe tailerretara ez joateak ikasgaia ez gainditzea ekar dezake, ezingo baita lortu tailerrei esleitutako notaren %50ko gutxieneko nota.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	KALIFIKAZIO GLOBALA
G1	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6, IE7, IE8, IE9, IE10	Amaierako proba idatzia	- Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	%80
G2	IE11	Amaierako proba praktikoa	- Simulazioa	%10
G1	IE10	Tailerak	- Asistentzia, parte-hartzea eta aurretiko prestaketa	%10

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2021-2022 ikasturteko irakasgaiari dagokion sei hilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek, aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko.

Ikasle horiei lehenengo deialdian gainditutako ebaluazio-jardueren nota erresebatuko zaie ikasturtea amaitu arte.

Ikasturtea itxitakoan irakasgaia gainditzen ez badute, tailerretan eta amaierako proba praktikokoan lortutako nota gordeko zaie bakarrik, ikasturte batean (2023/2024), baldin eta ebaluazio-jarduera horiek gutxienez balio osoaren %50arekin gainditu badira. Kasu horretan, jarduera horiei esleituko zaien nota ebaluazio-jarduera bakoitzaren balio maximoaren %50 izango da. Ikasleak jarduera horietan nota altuagoa lortu nahiko balu, berriz ere jarduera horietara aurkeztu beharko litzateke hurrengo ikasturteko deialdian.

Ezohiko deialdiaren azken azterketetara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Ohiko deialdian bezala, ebaluazio-jarduerak ezin badira egin edo ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera uzten badira, jarduera eta ebaluazio-irizpide berriak ezarriko dira. Neurri berri guztiak behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko zaizkie ikasleei.

DERRIGORREZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

"Bizi-konstanteen" tailerrean, ikasleei eskatuko zaie erloju bat ekar dezatela, segundo-orratzarekin, bai eta arropa eroso ere "Gorputz-mekanikako printzipioak" tailerrera.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Ball J, Dains J, Flynn JA, Solomon B, Stewart R. Manual Seidel de Exploración física. 9ª ed. Madrid: Elsevier; 2019.
- * García FP, Pancorbo PL, Rodríguez M, Soldevilla JPJ, Torre JE, Verdú J. Atención integral de las heridas crónicas. 2ª ed. Logroño: GNEAUPP; 2016.
- * Grossman S, Porth C. Porth Fisiopatología. Alteraciones de la salud. Conceptos básicos. 9ª ed. Barcelona: Wolters Kluwer; 2014.
- * Jiménez A. Miaketa-gida. Propedeutika klinikoa. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua; 2008.
- * Pérez Arellano JL. Manual de Patología General de Sisinio de Castro. 7ª ed. Barcelona: Elsevier Masson; 2013.
- * Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Valoración y manejo de las lesiones por presión para equipos interprofesionales. Toronto: RNAO; 2016.
- * Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Valoración y manejo del dolor. Toronto: RNAO; 2013.
- * Renton S, McGuinness C, Strachan E. Procedimientos de enfermería clínica. 6ª ed. Barcelona: Elsevier; 2021.
- * Smith SF, Duell DJ, Martin BC. Técnicas de Enfermería clínica. De las técnicas básicas a las avanzadas. 7ª ed. Vol I y II. Madrid: Pearson Prentice Hall; 2009.
- * Smith SF, Duell DJ, Martin BC, Aebersold ML, Gonzalez L. Habilidades para enfermería clínica. 9ª ed. Vol I y II. Madrid: Pearson; 2017.

Sakontzeko bibliografia

- * Blanco RM, López E, Quesada C, García MR. Helduen presio-ultzeren gaineko gomendioen gida, prebentzioaren eta tratamenduen ebidentzian oinarritua Vitoria-Gasteiz: Osakidetza; 2015.
- * Pastrana J, García de Casasola G. Fisiopatología y patología general básicas para ciencias de la salud. Barcelona: Elsevier, 2013.
- * Herrera F. Fisiopatología. Manual de mapas conceptuales. Mexiko: Manual moderno; 2009.

Intereseko helbide elektronikoak:

- * Osakidetzako web-orria. Hemen eskura daiteke: <http://www.euskadi.net/sanidad>
- * Erizaintza hiztegia. Hemen eskura daiteke: <http://www.ehu.eus/euskalosasuna/Erizaintza2.pdf>
- * Grupo Nacional para el Estudio y Asesoramiento en Úlceras por Presión y Heridas Crónicas (presio-ultzerak eta zauri kronikoak ikertzeko eta haiei buruzko aholkuak emateko talde nazionala). Hemen eskura daiteke: <http://www.gneaupp.org/>
- * Berpizteko gomendioak, Berpizteko Europako Kontseilua (ERC) 2015. Berritasun nagusiak Hemen eskura daiteke:
http://www.cercp.org/images/stories/recursos/Documentos/Recomendaciones_ERC_2015_Principales_nov edades.pdf
- * Oiunarrizko BBB infografia (Osakidetza). Hemen eskura daiteke:
http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-gkemer04/es/contenidos/informacion/emer_infografias/es_emer/emergencias_infografias.html
- * Cochrane datu-basea Hemen eskura daiteke: <http://www.bibliotecacochrane.com/clibplus/>
- * Medline datu-basea (Pubmed-erako doako sarbidea) Hemen eskura daiteke:
<http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed>
- * Up to Date (Osakidetzaren intranetaren bidezko sarbidea). Eskuragarri hemen:
<http://www.uptodate.com/es/home>
- * The Joanna Briggs Institute (Australia). Ebidentzian oinarritutako baliabideetarako sarbide libreko datu-basea Hemen eskura daiteke: <http://es.connect.jbiconnectplus.org/default.aspx>
- * Fistera Atari Sanitarioa (Lehen Mailako Arreta Sarean). Hemen duzu eskura:
<http://www.fistera.com/index.asp>

OHARRAK

Irakasgaiaren hasieran, matrikulatutako ikasle bakoitza eGela plataforman ikasgaiaren informaziora sartu ahal izango da. Bertan honako hauek aurkituko ditu:

- Informazio-dokumentazioa: Laburpena, irakaskuntza-gida, saioen eta egin beharreko tailerren kronograma.
- Ikasmateriala: gai unitate bakoitzean irakasleak erabiltzen dituen aurkezpenak, dokumentazioa eta ikasmateriala.
- Orientazio-materiala: Jarduera edo tailer mota bakoitzerako, ikasleak jarduera horiek egiteko informazio lagungarria atzitu ahal izango du.

Material eta informazio horri guztiari esker, ikasleek gaitasunak lortu eta ebaluazio-jarduerak gainditu ahal izango dituzte.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ezarritako irizpideei jarraituz 2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduko Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hau gainditzea aurrebaldintza da 4. ikasturteko Praktikumetan matrikulatu ahal izateko.

TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin tutoretzak posta elektronikoz eskatu beharko dira, irakasgaiaz arduratzen den irakaslearen bitartez: lorena_hernando001@ehu.eus. Ez daude eskola presentzialen absentziak ordezkatzera bideratuta.